

ERREPORTAJEA

# Autoeraikuntza begirada emozionaletik. Barne ezkutuak planoaren argipean



Agurtzane Ormatza

Sexologoa

Jasotze-data: 2014-12-05

Onarpen-data: 2014-12-19

%%%%%%%%%

Hemen nago arkitekturari lotutako aldizkarian sartuta, nire ekarpen xumea egiteko, sexologiatik, sexuen zientziatik, eta, zelan ez, nire ikuspuntutik. Inoiz ez nuen pentsatuko ere horrelako aldizkari baten idatzi behar nuenik, zer neukan nik esateko bada horrelako aldizkari batean? Espero dut irakurleek testuari lekutxo bat egitea, patxadaz hartzea eta artikulu honi euren barneko arkitekturatik begiratzea.

Autoeraikuntza (DIY) aldizkari-zenbaki honen ardatza zela jakin nuenean, hainbat "artxibo" zabaldu zitzaizkidan. Batzuk psikologia eta sexologian landutako kontzeptuei lotuta (norberaren hazkuntza pertsonalaren eraikuntza, talde/bikote sistemen eraikuntza, komunikazio-sistemen jarduna...), eta beste artxibo batzuk kontsultan ikusten ditudan bikoteei dagozkie. Beraz, ezinbesteko *brainstorming* aberasgarria, artikulua eraikitzeko!

Bikote-sistemaren egituraren eraikuntzak giltzarri desberdinak ditu. Bikotekideok gure etxe propioari buruz erabakiak hartzen ditugunean, aurrez aurre jarriko zaizkigu egitura horren hainbat adreilu. Ez da batere erronka makala izango gure eskuekin, gure baliabideekin, gure ilusioarekin eta moduekin etxea eraikitzea. Aberasgarria bezain konplexua den bidetik ibiliko gara.

Baina komuneko proiektuari eutsi baino lehenago, lagun bakoitzak badu etxe horri lotutako istorio luze bat, esperientziak eta espektatibaz osatuta. Gure haurtzarora eta gaztarora etxe batean (edo gehiagotan) eman genuen, eta han bizitakoak gure bizitzako alor askotan eragina edukiko zuen. Horietako batzuk agerian geratuko zaizkigu gure ametsetako etxeaz pentsatzen dugunean.

Haurtzaroko etxeko planoak, gela bakoitzeko diseinua, altzarrien formak, hormen jantzia, familiarentzako orduko ezinbesteko elementuak, argitasuna, usaina... gure barnean gordeta ditugu, argazkietan, pelikuletan, elkarrizketetan, sentsazioetan... Sarri, orduantxe, atzera begiratzean, konturatzen gara etxe hartan zeuden hainbat elementu, estrukturalak edo ez, mantendu gura ditugula, edo ez ditugu nahi gure etxe berrian... Etxean, etxeokekin bizitakoaren arabera balioetsiko ditugu eraikin haren txokoak. Atzera egindako begiradak lagunduko digu aurrerantzean egingo ditugun aukeraketak ulertzen.

Bikotekide bakoitzak bere istorioa darama bere zorroan. Han daude barneko arkitektura: gure plano emozionalak, gure argitasunak eta iluntasunak, gure txoko intimoak, gure kakalekuak, gure neurriak eta neurriak hartzeko moduak, gure kartografia afektiboa, gure hormak, gure kutxa ezkutuak. Lagunarekin komuneko proiektu batean elkartze an gure zorroak batuko dira, nahi eta nahi ez, eta bion artean beste istorio bat eraikiko dugu. Gure istorioa proiektuarekin batera zabalduz eta sakonduz. Zelan ez da izango bada proiektu inportante bat?

Etxeko lanak etxean bizi baino lehenago egiten hasten gara. Hainbat lan banandu egin behar ditugu bidea errazteko: betebeharrak ez zaizkigu gutako inori gustatzen; beste batzuk, aldiz, bion; badaude zailak egiten zaizkigun arren egin nahi ditugunak, ikasi gura dugulako; badaude batzuk gure bikotekideak hobeto egingo dituenak, eta horien artean, batzuetan, jakin arren berari utzi beharko geniokeela egiten, sinetsita gaude gure ukitua ezinbestekoa dela edozelako txokoa edertzeko, badaudela gure harridurarako inoiz egin



bako hainbat lanek gure ezkututako altxorra ateratzen dutenak. Sarri ez da erdibanako kontua, konpentsazio kontua baino, erraztasun kontua...

Gutako bakoitzak gura duenari eustea, inorena zapuztu barik, eta bion planoari ekitea ez da erraza. Bikotesistemaren lehen geltokia da hori, hain zuzen. Mahai gainean jarriko da gure interakzioa, hau da, komunikatzeko moduak, negoziatzeko abileziak eta iskanbilien kudeaketa.

Izan ere, komunikatu beti komunikatzen dugu, baita isiltasunean ere. Bi pertsona, bi biografia, bi modu komunikatzeko, eta, gainera, bikotekideak sexu desberdinetakoak baldin badira, komunikatzeko bideak ere desberdinak dira. Etxea eraikitzen gabiltzanean hainbat gurari eta beharri buruz egin behar dugu berba, hainbat elementu egokitu, negoziatu. Behin eta berriz. Ez da harriztekoa, komunikazioa ez da erraza izango. Gure altxorretariko bat izango da ulertzea eta jabetzea desberdinak garela, eta horrek egiteko hainbat modutara eramango gaitu.

Negoziatioetan konturatzen gara zer zaila egiten zaigun amore ematea, isilik geratzea, gureari eutsi behar izatea, gure barrenean gauza batzuek mugiezinak diruditela jabetzea... Sarri, konturatu orduko, gure artean iskanbilaren sua piztuko da. Negoziatzeko, hain zuzen, ezinbestekoa izango da topaketarako prest egotea, malguak izatea eta lagunaren proposamenak entzuteko zabalik egotea, bion arteko oreka sortzeko, zertarako eta gurea den etxe hori eraikitzeko. Batzuetan, uste dugu negoziatzea gurea alde batera uztea dela, baina negoziatzea zera da, bionari eustea, bestearena zapuztu barik. Biok sentitu behar dugu bidean zer edo zer utzi dugula bion hobe beharrerako.

Gatazkak erraz sortzen dira, desadostasunak daudenean. Etxearen eraikuntzan behin eta berririo ikus ditzakegu. Beraz, aukera paregabea dugu gutaz eta gure harremanaz ikasteko eta beste modu batzuk eraikitzeko. Sarri ikusi izan dugu arazo bat konpontzeko era, konfliktu bera saihestea dela. Gure bizitzako beste alor batzuetan modu horri etekin erraza ateratzen badiogu ere, ez da hain erraza izango etxea eraikitzean. Ez badiogu zerbaiti aurre egin, agerian geratuko da gure etxean. Hala, hasierako irtenbidea (saihestea) etorkizunean arazo bihurtu daiteke. Esaterako, "ez nuen komunari buruz eztabaidatu nahi, eta lagunaren ardurapean itxi nuen komuna; orain, oster, komunera sartzen naizen bakoitzean amorratuta nago neure buruarekin. Baita berarekin ere".

Bikotekideak eta biok etxeko lehen planoan marrazten hasten garenean tabernako zapi batean, gure barruko planoan kanporatzen hasten gara. Zelango etxea nahi dugu? Zenbat gela? Edo logela gabekoa? Orain office dena gero umearen gela? Umerik gura dugu ala? Etxea lagunentzako/familiarentzako zabalik? Sukaldea zelangoa? Nork kozinatzen du gehiago? Egongelan telebistarako txokorik bai? eta logelan? Zertarako telebista? Bakoitzak bere txokoa edukiko du? Zeri lehentasunak? Nire musikarako gela? Nork eta zelan erabakitzen dira planoaren marrazkiak? Zer esaten dugu eta zer isildu paperean diseinatutako eraikuntza horretan?

Plano hori marrazten dugunean gauza asko marrazten ditugu. Gure konpromisoa bikotearen bermearen loturarikoa bat da. Ezinbesteko premisa da harremana sustatzeko eta irauteko. Konpromisoa lan dinamikoa eta historikoa ere bada, ez da monolitikoa. Gure etxea eraikitzean gure konpromisoari eusten diogu.

Bakoitzaren muin ezkutuen eta atabikoena garatzeko lekua da gure intimitatea, harremanaren beste lotura bat, sakon eta konfiantza osoz murgiltzen gara bertan. Eta, hain zuzen, intimitateak goian etxeko planoan itxura hartzen du. Altxor preziatua gure komunikazioa errazteko, biluzten gara gure barrena askatuz. Norberaren gurariak eta beldurrak azalarazten dira, eta etxeko espazioetan gauzatu. Sukaldea atontzen, sarrera margotzen... ditugun bitartean, aukera paregabea gure erotikari (intimitatearen perletariko bat) ere bidea emateko, gure gozamenari leku pribilegiatu bat emateko.

Gure sinergia, ezinbestekoa lotura bikote-sisteman, erraz sentitzen dugu. Hau da, elementu biak (bikotekideak), batuz gero, horren emaitza handiagoa eta aberasgarriagoa da, elementu bakoitzak bere aldetik egiten duen lana gehitzen badugu baino. Lagunen arteko lan kooperatibo horretan sinergia modu ezberdinetan gauzatzen da: norberaren estimua handitzea, lan egiteko gaitasunean sakontzea, ekonomia garatzea, sormena areagotzea, bakoitzaren esparruak sakontzea... Sinergia horren lanketa ezinbestekoa da bikote-sistemak modu gozagarri batean iraun dezan. Bion elkarlana nahitaezkoa da. Oso inportantea da nor bere ahalmenaz zein bikotekideenaz jabetzea.

Etxeko planoan gauzatzen hasten garenean, agerian geratuko da gure interakzioen muina. Nahi eta nahi ez, *Do It Yourself* horretan, gure bikote-sistemaren arkitekturaren *Do It Yourself* jorratuko dugu, ariketa bikaina.

%%%